

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Udalaren arau subsidiarioetan babestutako ondasunen udal katalogoa aldatzeko espedientearen ebazpena, Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakiko eraikina katalogotik kanpo uzteko eta auri egoeran dagoela deklaratzeko

Aiarako korporazioak, 2021eko abenduaren 23an balio osoz egindako ohiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Ebaztea udal katalogoa aldatzeko espediente, eta katalogotik kanpo uztea Luiaondoko Ibaguen auzoko 10 zenbakian dagoen eraikina, 630 zenbakiarekin katalogatuta dagoena, legezko auri egoeran dagoelako, honako hauek direla eta: auri egoera fisiko lehen-goraezinean dago, haren egitura elementuak erabat hondatuta daude eta, horrez gain, ez dago beharrezko laguntza ekonomikorik, eta arkitektura, historia edo artearen ikuspegitik ez dauka balio garrantzitsurik edo aparteko berezitasunik.

ALHAOn iragarki bat argitaratzea, Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakiko eraikina udal katalogotik kanpo utzi dela jakinarazteko, denek horren berri izan dezaten, eta erabaki hau Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Plangintzaren Erregistroari helaraztea, eraikin hori katalogotik kanpo utzi dela jakinarazteko.

Halaber, erabaki hau Aiara Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idatzi duen taldeari jakinaraztea, eraikina katalogotik kanpo utzi dela jakin dezaten.

Bigarrena. Auri egoeran deklaratzeko Kexaako Ibaguen auzoko 10 zenbakiko eraikina, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 201.1 artikulua araber, eta 199.2 artikulua lotuta, eta jabeari hilabeteko epea ematea, erabaki hau jakinarazten denetik aurrera, pertsonen eta ondasunen kalterik ez eragiteko behar diren neurriak har ditzan, eta, behin eraikina udal katalogotik kanpo utzita, eraikina eraisteko proiektua edo eraikina goitik behera zaharberitzeko proiektua, berak nahi duena, aurkez dezan. Nolanahi ere, proiektu bata zein bestea teknikari eskudunak idatzia izan behar da, eta dagokion kidego ofizialak ikus onetsia.

Ohartarazten da ezen, emandako epean eraispen edo zaharberitze proiekturik aurkezten ez bada, dagokion udal lizentzia eskatuta, eraisteko agindua emango dela, eta gehienez ere hamar hertsapen isun ezarriko direla hileroko, bakoitza 600,00 eurokoa, eta azken hertsapen isunaren ondoriozko borondatezko betearazpenerako epea igarotakoan, Udalak ahalmena izango duela nahitaezko betearazpenera jotzeko, jabetzaren ondarearen kontura, eta premiamendu bidera jo ahal izango duela. Hori guztia, dagozkion zehapenak alde batera utzi gabe.

Hirugarrena. Erabaki hau jabeari jakinaraztea, eta adieraztea erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango duela hilabeteko epean, korporazio honetan, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango duela bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2022ko urtarrilaren 5a

Alkate-lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA